

Udal talde politikoaren iritzia



TURISMO-INDUSTRIAREN ALDEKO APUSTUA

Getxon —Bizkaian eta Euskadin bezala— gero eta garrantzi gehiago duen ekonomia-sektorearen aldeko apustua. Berriz ere nabarmendu dugu apustu hori turismoko nazioarteko azoka garrantzitsuenetako bat den FITUR-en; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Getxoko turismo-sektore guztia-ekin egindako lankidetzaren eta guztion ahaleginaren emaitza da. EAJ-PNVk turismoa bultzatzeari buruzko konpromiso argia ezarri zuen hauteskunde-programan: “Udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta turismoaren sektoreei eraginkortasunez laguntzea. Honako zerbitzu hauen bitartez: harrera-zerbitzua, turismoko informazio-zerbitzua, to-

kiko turismo-eskaintzaren sustapena nahiz zabalkundea, etab. Halaber, gure turismo-baliabide nagusien baliabide nabarmentzea, turismo-produktu berriak sortu zein sustatzea, eta udalerriko turismo-sektoreko eragileekin baterako lana egitea”.

Getxoko herritarrekin hartutako beste konpromiso bat betetzen dugunaren erakusgarri dira honako hauek: Azoketan egotea, Getxoko turis-

mo-eragileekin eta beste erakunde batzuekin egindako baterako lana, eta beste adibide asko.

Irailan egingo den 2018ko Itzuliari esker erreferentzia izango gara mundu osoan, Getxon hasi eta Bizkaiko begiratokian amaituko den etapa egongo baita. Bizkaia Zubiaren 125. urteurrena ospatzea. Kalitate Turistikoaren SICTED zigiluarekin lan egiten duten enpresak babestea, beren zerbitzuen

erabiltzaile eta eragileentzako berme garrantzitsua baita. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen egokitutako turismo-eskaintza sortzea, besteak beste: Braille mapa bat eta menu irisgarriak. Gurutzontzien turismoari dagokionez etengabe ari gara ekimenak burutzen, itsasotik Euskadira sartzeko atea baita Getxo. Getxo gozatzeko planak ere aipatu beharra dago, horietan jaso baitira bisitatzen gaituztenek gozatu ahalko dituzten esperientzia turistiko guztiak, ziur asko balorazio handia emango dizkiete eta euren ingurukoekin partekatuko dituzte, gure ordezkari onenak bilakatuz. EAJ-PNVk turismoaren alde egindako apustuaren ardatzak hauek dira: Getxoz gozatzeko eta Getxon gozatzeko.



PSE-EE
PSOE

ETXEBIZITZAREN EZ-POLITIKA

Gobernuaren eta oposizioaren erantzukizuna aitortzeak askotan perfektuak ez diren erabakiak hartzea dakar. Adierazpen horrek sinplea badirudi ere, duela gutxi ikusi genuen guztia harrapatu nahi duten alderdi populisten gorakada, anbiguotasunari eta zehaztugabetasunari helduta aurrera egiten dutenak. Politika egiteko modu horren adibide ugari ditugu gure udalean, bereziki etxebizitzari dagokionez. Izan ere, joan den abenduan udalerrian hutsik dauden etxebizitzaren errolda egiteko zerbitzuaren adjudikazioa onetsi genuen, herritar guztiek etxebizitza duin bat izateko eskubidea gauzatzeko helburua duen PSE-EE alderdiaren Etxebizitzaren Legearen aplikazioko abiapuntu gisa; aipatzekoa da GUK taldeak (Podemos-Ahal dugu alderdiaren markak) eta PP taldeak erakutsitako babes eza. Dirudienez talde horiek ez dute nahi udalerrian babes ofizialeko etxebizitzarik eraikitzea ere ez, bereziki Iturribarri eta Romo auzoetan, argi eta garbi utzi baitute horrekiko oposizioa. “Horrela ez” esatea izan da eman duten argudio bakarra. Hala eta guztiz ere, zorionez burbuila oro lehertzen da azkenean.

Cs

ZURE AHOTSA IZAN NAHI DUGU

Argi daukagu zuek, getxotarrok, lehen eskutik ezagutzen duzuela zein eraberritzelan behar dituen zuen inguruak, eta zuek izango duzuela, ziur aski, kexa, iradokizun eta ekarpen mordoa. Azken finean, Getxoren taupada zarete. Zuen ahotsa izan nahi dugu. Jar zaitezte gurekin harremanetan: herritarrak@getxo.eus, Twitter: @CsGetxo, Facebook: Cs Getxo, eta telefonoz: 944660291. Zain gaituzue!



PP

BEHIN-BEHINEKO PROIEKTUA GELTOKIKO PLAZARAKO



Geltokiko plaza erreformatzeko EAJk erakutsi duen borondate ezaren aurrean, herritarrek eskatu bezala, behin-behineko proiektua proposatu nahi dugu gune horretan zuhaitzak eta bankuak berriz izan dituzagun, gutxienez alkateak bere karpajartzen ez duen egunetan. Getxoko arkitekto gazte batek egindako proiektua da, banku modullarrak erabiltzen dituen eta zabalguneretan erabilera-nahiz irudi-aldaketa egitea ahalbidetuko diguna. Errepikatzen jarraituko dugu, EAJ-PNVk plaza berreskuratuko duen egiturazko erreforma osoa egin dezan ahalik arinen eta herritarren erabilera-zein bizikidetzaren espazio bihurtzeko helburuarekin.

Guk

HOBARIK FAMILIA UGARIENTZAKO SOILIK

Urtarrilean egindako Ogasun Batzordean, PNV-PSEk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga aldatzeko proposamen bat aurkeztu du. Arreta gehien deitu diguna hau da: proposamenaren hasieran FAMILIA UGARIEN kideen diru-sarrerak aipatzen dira soilik, eta ez gainerako kasuak. Horrenbestez, arreta jaso barik eta hobariak eskuratzeko aukerarik gabe geratuko dira herritar asko, familia ugari kide ez izateagatik. Kontuan hartu behar da familia-unitate askok ezin dutela euren kideen

kopurua handitu horrelako etorkizun ekonomiko zalantzarriarekin. Hobari horiek emateko irizpide BAKARRA errenta izan behar dela deritzogu. Gure ustez, aldaketa horren arrazoia hau da: gobernu-taldea gero eta gehiago hurbiltzen da PPren politikara, horregatik adosten dituzte horrelako aldaketak talde guztiekin modu irekian hitz egin eta euren ekarpenak entzun ordez. Hilabete guztietan ikusten dugun funtzionatzeko modua da, beste batzuekin jada hitz egindako eta itundutako

informazioa helarazten baitzaigu. Ez dugu uste horren garrantzitsua den zergen gaiari heltzeko modua denik; herritar guztientzako kaltegarri diren eta familien arteko desberdintasunak eragiten dituzten erabakiak hartzen dira bulegoetan. PNV-PSE taldeak PP alderdiarekiko duen hurbiltasuna nabaria da; izan ere, gure udalerriko gune jakin batzuei mesedetzeko itunak egin izan dituzte aurrekoetan, eta PP gune horietan zentratu ohi da botoak eskuratzeko. Igartzen da batzuk kanpainen daudela dagoeneko...

ehildu

ZARAMAK IRENTSIKO AL GAITU?

Udal gobernuak orain arte garatu duen hondakinen kudeaketa eskasaren aurrean EH Bilduk kanpaina bat abiatuko du neurri zehatzak proposatuz. Lehenik kontzientziazio politika serio eta iraunkorrek martxan jartzea proposatuko dugu herritarrei ezagutarazteko zer-nolako onurak dauzkan gaikako bilketak. Bigarrenik, organikoaren bilketan parte hartzen duena saritzea eskatuko dugu, %50eko murrizketa ezarri beraien zarama-tasan. Azkenik Getxon konpost plantaren ezarpena



proposatuko dugu materia organikoaren ongarri bihurtzeko Getxoko hainbat guneetan. Neurri hauek hurrengo Hondakinen Foroan aurkeztuko ditugu helburu bikoitzarekin, hots, getxoztarren artean gaikako bilketa bultzatzea eta Europak 2020rako agindutako birziklapen tasa lortzen laguntzea. Era berean kanpaina honen barruan etxeko gaikako bilketaren onurak azalduko ditugu birziklapen tasa handiena lortzen duen sistema delako.